



---

## 2017-2018 LEP

### ARGIBIDEAK: LANPOSTUEZ JABETZEA ETA LANPOSTUAK UZTEA

---

2017-2018 LEPen ondorioz karrerako funtzionario gertatu direnen pertsonak lanpostuaz jabetzearen harira, Giza Baliabideen Sailari planteatu zaizkion zenbait auziren erantzunak jakinaraziko ditugu jarraian, jende orok izan dezan horren berri:

<b>DESTINOAK ESLEITZEA, ETA HORIEI LOTURIKO KARGU-UZTEAK</b>
--

#### ESKAITZA:

- Lanpostuak eskainiko zaizkie oposizio eta lehiaketa faseak gainditu dituzten pertsonari. Eskaintza hau onetsitako leku kopurura mugatzen da, Tokiko Gobernu Batzarraren erabakiekin bat etorruta (2017ko LEPa, 2018ko LEPa eta 2017-18 LEPa handitzea).
- Eskaintza, **lanpostu-atal organiko-derrigortasun** terminotan ulertuta, eskaintzari eta haren handitzeari sorrarazi zuten destinoetara doitu da. Agiri hau sinatzen denetik eta LEPeko A taldeko (A1 eta A2 azpitaldeetako) leku guztien jabetzea gertatzen den arte, ez da batere aldaketarik egingo Udalaren egitura organikoan LEP prozesuak nolabait ukitu dezakeene ezertan.
- **Barne-sustapeneko** txandako leku bete gabeak txanda librekoa osatuko dute, lanpostu bereko eskaintza duten eta hizkuntza-eskakizuna eskatzen den kategorietan.
- **Desgaitasuna duten pertsonentzat** gordetako kupoko leku bete gabeak txanda librekoa osatuko dute, lanpostu bereko eskaintza duten eta hizkuntza-eskakizuna eskatzen den kategorietan.
- Deialdi honetan desgaitasuna duten pertsonentzat gordetako kupoan eskainitako lanpostuen % 3 estaliko ez balitz, handitu egingo da hurrengo LEPen desgaitasuna duten pertsonentzako leku-erreserba, legezko kupoaren bete gabeko lanpostuen kopuru berarekin, bertiere kolektibo horrentzako erreserbatutako muga eskaintza guztiaren % 10 delarik (2271/2004 EDko 3.2 artikulua).

#### DESTINOAK AUKERATZEA:

---



- Enplegu-eskaintza publikoa **funtzio publikoan sartzeko** mekanismoa da (karrerako funtzionario izendatzea), eta hasierako destino-atxikitzea dakar ondorio, zein, araudiari jarraiki, **behin betikoa** izango baita, **hornikuntza lehiaketa sistema** bidez lortutakoen balio berberaz.
- Administratiboki, elementu hauek zehazten dituzte destinoak: lanpostuaren kodea eta izendapena, atal organiko jakin batean kokatzeak (**Saila/Zerbitzua/Atala**), eta EAEn, gainera, hala eskatzen denean, euskara-maila jakin bat egiaztatu beharra.

#### **KARGUA UZTEA:**

- Destino jakin batean praktikaldian hasiko den funtzionario sartu berri baino aldi baterako betetako dotazioak badaude, “Behin-behineko atxikipenen amaiera, lanpostu hutsa arauz betetzeagatik. (LEP – HORNIKUNTZA – LANPOSTURA ITZULTZEA)” PS16 Protokoloan xedatutakoari jarraituko zaio, egin beharreko kargu-uzteak zehazteko.
- Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuko laugarren xedapen iragankorrak ukitzen dituen dotazioak protokolo horren aplikaziotik salbuetsita geratuko dira.

#### **PRAKTIKALDIA:**

Praktikaldi ebaluagarriaren iraupena hiru hilabetekoa izango da, hautatze-prozedura honen oinarri arautzaileen arabera, zein 2018ko urriaren 1eko ALHAOn argitaratu baitziren.

Hautaketa-prozesuaren fase hori baloratu ahal izateko, ordu efektiboen kopuruak lanpostuaz praktikaldian jabetzearekin hasiko den hiru hilabete naturaleko epeari dagozkien ordu teorikoen % 80tik gorakoa izan beharko du, eta berezitasun hauek hartu behar dira aintzat:

- **Karrerako funtzionarioek**, promozionatu dutenek, baimena eskatuko dute jatorrizko lanpostuan, praktikaldia egin ahal izateko (gauza bera zerbitzu-eginkizunetan dauden karrerako funtzionarioentzat). Behin praktikaldia gainditu dutelarik, lanpostuaz jabetuko dira karrerako funtzionario gisa, ordura arte titular gisa zuen lanpostuaz bereiziko dira, eta titular ziren lanpostuetan lan-utzialdiko egoeran deklaratuko dira ofizioz (365/1995 EDko 16. artikulua).
- **BITARTEKO FUNTZIONARIOEK, LEPeko DEIALDI HONEK GAUR EGUN UKITUTAKO LANPOSTUETAN DAUDENEK**, jatorrizko lanpostuari UKO EGITEA eskatuko dute (zigorrik gabe poltsetan) eta praktiketako funtzionario gisa jabetuko dira lanpostuez. Behin praktikaldia gainditu dutelarik, lanpostuaz jabetuko dira praktikaldian egin duten lanpostu berean. EZ badute praktikaldia gainditu, antolakuntzatik bereiziko dira, eta kontratazio-zerrendetan eraginak izango dituen ebazpen osagarri bat emango da.



- **BITARTEKO FUNTZIONARIOEK, LEPeko DEIALDI HONEK GAUR EGUN UKITU EZ DITUEN LANPOSTUETAN DAUDENEK**, praktikaldia egiteko baimena eskatu ahalko dute jatorrizko lanpostuan.<sup>1</sup> Behin praktikaldia gaindituta, praktiketako funtzionario gisa jabetuko dira lanpostuez, eta ordura arte bitarteko gisa zuen lanpostuaz bereiziko dira, berari UKO EGINEZ. Langile horiek, SOILIK praktikaldia egiten ari diren zentroan ageriko dira ALTA egoeran egongo dira Gizarte Segurantzari

Bitarteko funtzionarioak, promozionatu dutenen langileen ordeztan ari direnak, **zuzeneko hautaketa** bidez praktikaldia egiteko baimena irautan bitartean ordezkapena egiteko kontratatutak izan daitezke (zuzeneko hautaketak ukitutako bitarteko langileei ez zaie likidaziorik egingo).

#### **EZINTASUN IRAGANKORREKO EGOERAN DAUDEN PERTSONAK:**

Ezintasun iragankorreko egoeran egon bitartean Gizarte Segurantzari ezin denez mugimendurik egin (alta edo bajarik eman), hauxe jakinarazten da:

- **Karrerako funtzionarioek**, beste lanpostu batzuetara promozionatu dutenek: **EZIN** dutenez lanpostu aldaketagatik mugimendua egin, ezintasun iragankorreko egoeran dauden karrerako funtzionarioen **lanpostuaz jabetzea ETEN EGINGO DA ezinbesteko kausaz, harik eta medikuak alta ematen dieten arte.**
- **BITARTEKO LANGILEEK**: EZIN dute mugimendurik egin (alta edo bajarik eman) Gizarte Segurantzari; horrenbestez, **praktiketako funtzionario gisa lanpostuaz jabetzea ETEN EGINGO DA ezinbesteko kausagatik, medikuak alta ematen dieten arte.**

Ezintasun iragankorreko egoeran egon bitartean ez da praktikaldiko ordurik gauzatuko. Garrantzitsua da interesatuek Giza Baliabideen Sailean jakinaraztea ezintasun iragankorreko egoeran daudela.

#### **LIKIDAZIOA ETA KITAPENAK:**

<sup>1</sup> “Lizentzia eta baimenak” eskabidearen bitartez eskatu behar da praktikaldian parte hartzeko baimena (“besterik” atala, oharren eremuan baimen mota azalduta), eta zerbitzuaren arduradunak emandako aldeko txostena eta baimena baliatzeko beharra egiaztatzen duen agiria gehitu behar dira.



**Amaitu egingo dira indarrean dauden lan-utzialdi eta baimenak oro.** Lanaldi-murrizketa, baimenak eta abar eskatu nahi dituzten praktiketako funtzionarioek horretarako ezarritako tramitazioa jarraitu beharko dute, dagozkien epe eta izapideak errespetatuz. Horrenbestez, jardunaldiaren % 100ean hasi beharko dute praktiketako destinoetan.

#### **KARRERAKO FUNTZIONARIOEK, PROMOZIONATU DUTENEK:**

Praktikaldian nahiz karrerako funtzionario gisa lanpostuaz jabetu ostean (behin praktikaldia gaindituta) sortu dituzten ordu/egunei eutsi ahalko diete, ez zaielako likidaziorik egingo.

#### **BITARTEKO FUNTZIONARIOEK, GAUR EGUN LEPeko DEIALDI HONEK UKITUTAKO LANPOSTUETAN DAUDENEK**

Praktikaldira arte sortu dituzten ordu/egunei eutsi ahalko diete, ez zaielako likidaziorik egingo. Praktikaldia gaindituta, karrerako funtzionario gisa duten egoerara eraman ahalko dituzte ordura arte sortutako ordu/egunak.

#### **BITARTEKO FUNTZIONARIOEI, GAUR EGUN LEPeko DEIALDI HONEK UKITU EZ DITUEN LANPOSTUETAN DAUDENEI**

**Ez zaie likidaziorik egingo praktikaldia egiteko, baimena hartu baitute jatorrizko lanpostuan.** Behin praktikaldia gainditu eta karrerako funtzionario gisa lanpostuaz jabetzearekin batera bitarteko funtzionario aritu den lanpostuaz bereizitzen den unean –hari UKO EGINEZ–, **orduan bai, orduan likidazioa egingo zaie. Oro har,** lanpostuaz jabetzeko eguna baino lehen gozatu behar dira oporrak, lizentziak, baimenak, zeregin partikularretarako egunak, egutegi-soberakinak, eta gisako gainerako egoerak.

### **PRESTAKUNTZA ETA PRAKTIKA ALDIAREN EZAUGARRIAK**

**EZ DA GAUZATUKO** praktikaldia zenbait egoera (baimenak, lizentziak, ezintasun iragankorreko egoera, lan-utzialdia, edoskitze-aldia, amatasun eta aitatasun aldia, sindikatuko zereginetarako liberazioa eta abar) iraun bitartean.

Lanaldi-murrizketa egoeretan (hots, % 100etik beherako lanaldikoetan) murrizketaren proportzioan burutuko dia praktikaldia.



### **IRAUPENA**

Deialdiaren oinarrietan ezarritakoa, alegia, hiru hilabeteko aldia, praktiketako funtzionario izendatu eta lanpostuaz jabetu diren unetik hasita. Hautaketa-prozesuaren alderdi hori baloratu ahal izateko, ordu efektiboen kopuruak lanpostuaz praktiketako funtzionario izendatzearekin hasiko den hiru hilabete naturaleko epeari dagozkien ordu teorikoen % 80tik gorakoa izan beharko du.

### **EZINBESTEKO KASUAK**

Ez betetzearen arrazoa ezinbesteko kasu behar bezala justifikatua bada, eta Giza Baliabideen Kudeaketaren Zerbitzuko buruak horrela ulertzen badu, prestakuntza- eta praktika-aldia luzatu egin ahalko da, ezarritako gutxieneko ordu efektiboen kopurua osatu arte.

### **AMATASUN EGOERA**

Amatasun baja dela eta ezinezkoa bada lanpostuaz praktikaldian jabetzea, erditu ondoren 18 aste atzeratu ahalko da, gehienez. Amatasun/aitatasun egoera praktikaldian gertatzen bada, eten egingo da hura, epe berean. Edonola ere, ondorio ekonomiko eta administratiboak promozioko gainerako kideen datetara atzeratuko dira.

Behin praktikaldia amaituta, izangaia egoera administratibo horretan izango da karrerako funtzionario izendatzeko egunera arte; egun horretan hartuko du lanpostuaren jabetza, izendapena atzeratzeko eskatzen ez badu. Praktikaldia amaitu ostean praktiketako funtzionario egoeran dagoen denbora-tartea ez da ebaluatuko.

### **LANPOSTUA**

Praktikaldia izendapena proposatu den lanpostu berean egingo da. Behin praktikaldia amaituta, eta gaindituz gero, lanpostu berean izendatuko da.

### **EBALUAZIOA**

Agiri honi erantsitako ebaluazio-txostenaren arabera egingo da ebaluazioa.

**Feliciano Pérez García**  
**Giza Baliabideen Saileko zuzendari nagusia**